

BEZEROEKIKO HARREMANA


Gure ustez publizitatea produktuaren garapenaren elementu garrantzitsuenetariko bat da eta gure enpresak bere indar osoa jarriko du bezeroak lortzeko eta hauek mantentzeko, hori delako zailena, bezeroak mantentzea eta haien leialtasuna irabaztea. Gure produktua mundura zabaltzeko hainbat komunikabide erabiliko ditugu, jende kopuru handienera iristeko.

Sare-sozialak izango dira gehien erabiliko ditugun komunikabideak, gure produktua gazteentzat delako batik bat (ez guztiz) eta gazteak sare-sozialetan aritzen dira egun osoan zehar.

Instagram sare-sozialean ezarriko ditugun iragarki motzak edozein gazteek ikusiko dituzte eta hauek, link baten bidez, gure web orrira joango dira, han gure produktuari buruz informazioa guztiz jasotzeko.

Spotify aplikazioa erabiliko dugu gure produktuaren publizitatea egiteko baita ere, musika entzuteko aplikazioa delako eta gure produktua musikaz gozatzea ziurtatzen duenez, Spotify-en iragarkiak jartzea aukera edertoa dela uste dugu.

Irratian iragarkiak jarriko ditugu gure produktua jende heldura ere zabaltzeko, hauek sare-sozialetan gutxi aritzen direlako edo guztiz alde batera uzten dituztelako.



Gure bezeroekin izan nahi dugun harremana guztiz zuzena izan behar da. Horretarako, sorkuntza kolektiboak erabiliko ditugu gure produktuari buruzko hainbat iritzi jasotzeko. Horrela, gure bezeroek kontaktu zuzena edukiko dute gure produktuaren kalitatea hobeto ezagutzeko.

Gainera, gure web orrian blog bat ezarriko dugu, bezeroek edo bezero ez direnen galderak erantzuteko eta, honekin, jendeak gure produktuari ikusten dizkion arazoak berri izango dugu. Batzuetan gure arazoak konpontzeko hirugarren pertsonen laguntza izatea beharrezkoa da.

